AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

482

1824/2011 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Oswaldo Gorosabel Larrañaga jaunak, berak hala eskatuta, Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izateari uzten diola aditzera ematen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 13ko 1768/2010 Ebazpenaren bitartez, Oswaldo Gorosabel Larrañaga jauna Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Nagusi honek ondokoa

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Oswaldo Gorosabel Larrañaga jauna Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko abenduaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Mendaroko Ospitaleari, Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdeari eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.